

# BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 3748

*EBAZPENA, 2025eko uztailaren 29koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez aurretiko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena ematen baitira proiektu honetarako: 220 kV-eko «ST Gatica – ST Gueñes circuito 1» energia elektrikoaren garraio-linearen berrindartzea. Proiektua Gueñes, Alonsotegi, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Zaratamo, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Mungia eta Gatika udal-mugarteetan (Bizkaia) lekututa dago.*

Espedientea: 48-AT-Y-2024-00070.

### AURREKARIAK

1.– 2024ko ekainaren 13an, Red Eléctrica de España SAU enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena eskatu zituen proiektu honetarako: 220 kV-eko «ST Gatica – ST Gueñes circuito 1» energia elektrikoaren garraio-linearen berrindartzea. Proiektua Gueñes, Alonsotegi, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Zaratamo, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Mungia eta Gatika udal-mugarteetan (Bizkaia) lekututa dago.

2.– Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan adierazitako ondorioetarako, argitara eman zen horren iragarkia, eskabide hori jendaurrean jartzeko, 2025eko otsailaren 10eko EHAAn, 2025eko martxoaren 27ko BAOn eta Gueñes, Alonsotegi, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Zaratamo, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Mungia eta Gatikako udaletxeetako iragarki-tauletan.

3.– 2025eko martxoaren 19an, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioako Energiaren Estatu Idazkaritzaren mendeko Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiari zegokion txostenaren eskaera bidali zitzaion, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 35.2 artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– 2025eko martxoaren 20an ondoko erakundeei egoki iritzitako baldintza teknikoak aurkezteko eskaera bidali zitzaion: ADIF, Telefónica de España SAU, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, BFAko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Ustiapen Atal Teknikoa, BFAko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Natura Ondarearen Zerbitzua; eta Gueñes, Alonsotegi, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Zaratamo, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Mungia eta Gatikako udalak.

5.– 2025eko apirilaren 1ean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Energiaren Estatu Idazkaritzaren mendeko Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen.

6.– Arauzko epeetan, kontsulta bidali zitzaion erakunde batzuek baldintza teknikoak aurkeztu zituzten.

ADIFek baldintza batzuk ezarri zituen obrak egin ahal izateko. REEri helarazi zitzaizkion, eta REEek onartu egin zituen.

ADIFeko Abiadura Handiko sailak eskatu zuen Goi-tentsioko Lineen Erregelamendua (otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua) bete zedila trenbide-linea elektrifikatuekiko gurutzaketei dagokienez. Zehaztu zuen 13,75 m-ko gutxieneko distantzia egon behar dela bide-plataformatik (katenariari eusten zion zutoinak 8,55 m-ko altuera zuen) REEren 220kV-ko linearaino (eroaleen baldintza txarrenetan). Gainera, adierazi zuen REEtik jasotako separatan ez zela distantzia hori betetzen, 8,5 m-ko distantziara baitzegoen. Ondorioz, jardueraren bideragarritasuna bermatzeko baldintza gisa ezarri zuen 115. gurutzaketak otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuaren ITC-LAT 07k eskatutako gutxieneko distantzia betetzea. ADIFeko Abiadura Handiko sailaren erantzuna REEra bidali zen. Jasotako azken erantzunean, REEek jakinarazi zuen aireko linearen eroaletik zero kotara 26,81 metroko distantzia zegoela (plano bat ere erantsi zuen) eta ADIFeko Abiadura Handiko sailak eskatutako 13,75 metroko distantzia aise betetzen zuela.

Telefónica de España SAUK azaldu zuen ez zegoela proiektuaren aurka, baldin eta indarrean dagoen araudia betetzen bada. Gainera, instalazioetan kalteak edo komunikazioetan perturbazioak gertatuz gero, jarduteko eskubidea erabili ahalko du.

Ondoko erakundeek ezarritako baldintzak helarazi zaizkio REEri: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, BFAko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Ustiapen Atal Teknikoa, eta BFAko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Natura Ondarearen Zerbitzua. REEek guztiak onartu ditu.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Hauetan ezarritako arauzko izapideak bete dira espedientean: 24/2013 Legea, azaroaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoko instalazioen garraio, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen; 48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, Eusko Jaurlaritzarena; eta bat datorren gainerako legedia.

3.– Lurralde Ordezkaritzako Energia Arloak aldeko txostena eman du 2025eko uztailaren 29an.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarriak diren gainerakoak oinarritzat hartuta; Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkaririk, hau

## EBAZTEN DU:

Aurretiko administrazio-baimena eta eraikitze baimena ematea Red Eléctrica de España SAU enpresari, proiektu honetarako: 220 kV-eko «ST Gatica – ST Gueñes circuito 1» energia elektrikoaren garraio-linearen berrindartzea. Proiektua Gueñes, Alonsotegi, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes, Zaratamo, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Mungia eta Gatica (Bizkaia) udal-mugartetan (Bizkaia) lekututa dago.

Ebazpen hau ematen da 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baldintza orokor hauek kontuan hartuta:

1.– Obrak egiteko, onartutako proiektua bete behar da, kasu bakoitzean eskatu eta baimentzen diren aldaketak eginda.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera.

3.– Lanak amaitutakoan, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman, eta abian jartzeko akta egiteko.

4.– Obrak egiteko behar diren udal- eta probintzia-eskumenetako eta bestelako baimenak edo lizentziak eragotzi eta aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekur-tsoa jar dakiok Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Deskarbonizazioaren zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guz-tia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera.

Bilbao, 2025eko uztailaren 29a.

Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaria,  
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.